**IRAGARKIA**
**Zallako Berdintasun Kontseiluaren sorrera onartzea. Araudi erregulatzailea behin betiko onartzea.**

Zallako Berdintasun Kontseiluaren araudiaren behin betiko onarpena.

2019ko azaroaren 6an egindako Osoko Bilkuran, Zallako Berdintasun Kontseiluaren araudia behin-behineko izaeraz onartu zen. Erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik hasita hogeita hamar eguneko epean ez denez inolako erreklamaziorik aurkeztu, erabaki hori automatikoki behin betiko bihurtu da, eta araudia osorik argitaratzen da.

Zallako Berdintasun Kontseiluaren araudia

Kontseiluaren eraketaren ondorioz, ezinbestekoa da Udalak, udalerriko emakume-elkarteek eta talde feministek elkarrekin lan egitea, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde. Parekidetasun-politikak kudeatzeko egiturek berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzen dute. Horrela, agintaritza publikoek berdintasunarekiko duten konpromisoa indartzen da, baita parte-hartze publiko eraginkorragoa eta zuzenagoa sustatu ere.

Zallako Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen Kontseiluak emakumeek politika publikoetan duten parte-hartzea areagotzeko zeregina du. Horrez gain, emakumeen ahalduntzerako tresna izan behar du.

**ANUNCIO**
**Aprobación de la creación del Consejo de Igualdad de Zalla. Aprobación definitiva de su normativa reguladora.**

Aprobación definitiva del Reglamento del Consejo de Igualdad de Zalla.

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión ordinaria celebrada el día 6 de noviembre de 2019, acordó aprobar inicialmente el Reglamento del Consejo de Igualdad de Zalla. Publicado en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y transcurridos 30 días sin que se haya presentado reclamación alguna, el mismo se eleva automáticamente a la categoría de acuerdo definitivo, procediéndose a insertar en el citado «Boletín Oficial de Bizkaia», el texto íntegro del mencionado Reglamento del Consejo de Igualdad de Zalla.

Normativa Consejo de Igualdad de Zalla

La constitución del Consejo hace inevitable que tanto el Ayuntamiento como los grupos asociativos de mujeres del pueblo como los grupos feministas trabajen conjuntamente a favor de la igualdad entre mujeres y hombres. Las estructuras para la gestión de las políticas de paridad mejoran la gobernanza favorable a la igualdad. Así, refuerza el compromiso de las autoridades públicas con la igualdad y promueve una participación pública más eficiente y directa.

El Consejo de Igualdad y Mujeres de Zalla por la Igualdad debe servir para que se

1. artikulua.— Izaera.

1. Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen Kontseilua parte-hartze eta aholkularitza-organoa izango da udal-sailentzako. Udal-mailako berdintasun kontseiluak parte-hartze demokratikorako organoak dira, toki-administrazioaren kontsulta, informazio eta aholkularitzara bideratuak. Udalerri-mailako berdintasun-politika sektorialak egia bihurtzeko sortzen dira.

2. Berdintasun Kontseiluak formulatutako proposamen eta ekarpenak ez badira kontuan hartzen behin betiko udal-erabakietan, hark behar bezala arrazoituta erantzun beharko du.

3. Berdintasun Kontseiluaren ekarpenak erabakigarriak izango dira Berdintasun Planaren garapenarekin lotutako gaietan, eta, oro har, berdintasun-alorreko jardueran.

4. Berdintasun Kontseiluak araudi honetan zehaztutakoa betetzeko konpromisoa hartzen du, baita beste arau eta xedapenetan jasotakoa ere.

5. Berdintasun Kontseilua ez da egongo Udalbatzaren menpe, eta autonomia funtzionala izango du.

6. Berdintasun Kontseiluak herritarren eta Udalaren arteko bitartekaritza-lanak egingo ditu. Hau da, mahaikideek Kontseiluari helaraziko dizkiote herritarren behar eta proposamenak, eta ondoren horiek aztertu eta kontuan hartuko dira; bestetik, Udalak Kontseiluari helaraziko dizkio berdintasunarekin lotutako proposamenak.

7. Emakumeen ahalduntzea eta autonomia sustatzea.

8. Emakumeek erabakiak hartzeko espazioetan duten parte-hartzea hobetzeko baliabideak eskaintzea.

9. Elkarteen eta tokiko administrazioaren arteko topaketa- eta bitartekaritza-espazio baliagarria izatea, eskumeneko gaiei dagokienez.

incremente la participación de las mujeres en las políticas públicas. Y también ser un instrumento para el empoderamiento de las mujeres.

Artículo 1.—Naturaleza.

El Consejo de Igualdad y Mujeres por la Igualdad será un órgano asesor y participativo para los departamentos municipales. Los Consejos Municipales de Igualdad se constituyen como órganos máximos de participación democrática, de naturaleza consultiva, informativa y asesora de la administración local. Nacido para la materialización de las políticas sectoriales sobre igualdad a nivel municipal.

Si las propuestas y aportaciones formuladas por el Consejo de Igualdad no son tomadas en cuenta en los acuerdos definitivos municipales, este deberá responder mediante algún razonamiento.

La aportación del Consejo de Igualdad será determinante en los temas relacionados con el desarrollo del Plan de Igualdad y en general con la actividad en materia de igualdad.

El Consejo de Igualdad se compromete a cumplir lo establecido en esta normativa; también lo estipulado en otras normas y disposiciones.

El Consejo de Igualdad no estará bajo la autoridad de la corporación municipal y contará con autonomía funcional.

El Consejo de Igualdad realizará el trabajo de mediación entre el pueblo y el ayuntamiento. Es decir, las personas miembros de la mesa llevarán las necesidades y propuestas del pueblo al consejo, a fin de que estén estudiadas y tenidas en cuenta; por otra parte, el Ayuntamiento también llevará al consejo las propuestas referentes a la igualdad.

Promover el empoderamiento y la autonomía de las mujeres.

Ofrecer un cauce para favorecer la

10. Aukera-berdintasunaren garapenean inplikatutako administrazio eta erakundeen arteko koordinazioaren eta lankidetzaren alde egitea.

2. artikulua.— Balioak.

1. Errespetua eta jarrera konstruktiboa bermatuko dira Berdintasun Kontseiluko kide guztien artean.

2. Kohesioa egongo da, hau da, kontseiluaren helburuek lehentasuna izango dute interes partikularren aurrean.

3. Ezinbestekoa izango da mahaikideek elkarri lagundu eta babestea. Kontseiluko talde edo pertsona baten aurka erasoak baldin badaude, Kontseiluak erantzun bateratua eman eta erasotua izan den talde edo pertsona babestuko du.

4. Konfiantzazko espazioa izango da, non parte-hartzaileek zintzotasunez eta erosotasunez hitz egin ahal izango duten.

5. Zeharkakotasuna bermatuko da. Hierarkiarik gabeko espazioa izango da.

3. artikulua.— Helburuak.

1. Emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren alde egingo duten pertsonen eta gizarte-eragileen sare bat sortzea.

2. Egiaztatzea udal-zerbitzu eta -politikek emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko dutela.

3. Jatorriagatik, etniagatik, dibertsitate

participación de las mujeres en los espacios de toma de decisiones.

Ser un espacio de encuentro e interlocución válido entre las asociaciones y la administración local en lo referente a los asuntos de su competencia.

Favorecer la coordinación y cooperación de la distintas Administraciones y entidades implicadas en el desarrollo de la igualdad de oportunidades.

Artículo 2.—Valores.

1. Se garantizará el respeto y una actitud constructiva entre todas las personas miembro del Consejo de Igualdad.

2. Existirá la cohesión, es decir, primarán los objetivos del consejo sobre otros intereses particulares.

3. Será imprescindible que las personas miembros de la mesa se ayuden y se protejan. Cuando existan ataques contra algún grupo o persona del consejo, el consejo dará una respuesta unificada y protegerá al grupo o persona que haya sido atacada.

4. Será un espacio de confianza, donde las personas participantes podrán expresarse con sinceridad y comodidad.

5. Se garantizará la transversalidad. Será un espacio sin jerarquías.

Artículo 3.— Objetivos.

1. Crear una red de personas y agentes


Kosme Bibanko, 2 | 48860 Zalla (Bizkaia) Tel- 010- 946390001 - udala@zalla.org - www.zalla.org

funtzionalagatik, erlijioagatik, orientazio sexualagatik edo lanbideagatik bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakume-kolektiboen aukera-berdintasuna bermatzea.

4. Emakumeen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea politikan, gizartean, lanean, ekonomian, hezkuntzan, kulturan eta gizarteko alor guztietan, ikerketak, txostenak eta proposamenak eginez eta administrazio-organoei neurri politikoak proposatuz emakume eta gizonen arteko berdintasuna errealitate bihurtzeko.

4. artikulua.— Funtzioak.

1. Aipatutako helburuak lortzeko, Udal Berdintasun Kontseiluari dagozkio honako funtzio hauek:

a) Udal-politikaren norabidea zehazten laguntzea, berdintasuna lortzeko helburuarekin.

b) Generoan edo bestelako inguruabarretan oinarritutako bereizkeriari lotutako ikerketa eta txostenak egin daitezen sustatzea.

c) Feminismoari buruzko aurreiritziak lantzea, bai mahaikideekin eta bai kanpoko jendearekin.

d) Berdintasuna sustatzeko ekintzak burutzen dituzten elkarte eta erakundeen identitatea errespetatzea, eta haien arteko lankidetza eta kooperazioa sustatzea.

e) Aukera-berdintasuna lortzeko udal-jardueren plangintza sustatzea eta plangintza horien jarraipena egitea.

f) Tokiko administrazioari aholkularitza ematea jarduketa-ildo nagusiak eta Berdintasun sailaren aurrekontuan lehentasuna izango duten jarduketak definitzerako garaian.

g) Berdintasun Kontseiluan parte hartzen ez duten pertsona edo taldeek egindako proposamenak biltzea.

h) Berdintasun Kontseiluari iristen zaizkion

sociales que trabaje a favor de la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

2. Cuidar que los servicios y las políticas municipales garanticen la igualdad entre mujeres y hombres.

3. Velar por la igualdad de oportunidades efectiva relativa a colectivos de mujeres que sufran factores de múltiple discriminación, sea por su razón de origen, etnia, diversidad funcional, religión, orientación sexual, profesión…

4. Mejorar el bienestar y la calidad de vida de las mujeres en política, sociedad, trabajo, economía, educación, cultura y en todos los aspectos de la sociedad, realizando estudios, informes y propuestas y proponiendo medidas políticas a los órganos de administración para que la igualdad entre hombres y mujeres sea efectiva.

Artículo 4.—Funciones.

1. Para la consecución de los fines señalados, corresponden al Consejo Municipal de Igualdad las siguientes funciones:

Colaborar en la dirección de la política municipal con el objetivo de lograr la igualdad.

Promover la realización de estudios e informes vinculados al ámbito de la discriminación por razón de género y circunstancias de múltiple discriminación.

Trabajar los prejuicios sobre el feminismo, tanto con las personas miembros de la mesa como con la gente del exterior.

Respetar la identidad de las asociaciones y entidades que realicen acciones para impulsar la igualdad y promover la colaboración y cooperación entre ellas.

Impulsar la planificación de actividades municipales a fin de lograr la igualdad de oportunidades y realizar el seguimiento de dichas planificaciones.

jarrera diskriminatzaileen salaketak jasotzea eta horien izapideak egiteko eskumena duten organoen esku uztea, salatutako jarrerek berdintasunaren oinarria hausten badute edo iraingarriak badira emakumeentzako, betiere justifikatu ahal badira.

i) Emakumeen aldeko jarduerak burutzen dituzten elkarte eta erakundeekiko parte-hartzea, lankidetza eta lan kolektiboa sustatzea.

j) Mahaikideen sarrera edo kaleratzea adostea.

k) Emakumeen udalerriko egoera aztertzea, eta, hala badagokio, txostenen bidez salatzea sexuan oinarritutako egoera diskriminatzaileak.

l) Bi sexuen arteko berdintasuna ahalbidetuko duten baldintzen jarraipena egitea, baita emakume eta gizonen parte-hartze orekatua ere, herrian, politikan, ekonomian, gizartean, kulturan eta hezkuntzan.

m) Beste erakunde batzuei proposamenak egitea emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko programa eta jarduketak burutzeko.

n) Sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak egin daitezela proposatzea emakumeen bizi-kalitatea hobetuko duten kontuetan.

o) Emakumeen arteko asoziazionismoa sustatzea, elkarteak sortuz eta haiei babesa eta laguntza eskainiz.

p) Proposamen, iradokizun edo kexa indibidual eta kolektiboak bideratzea, udal-organo eskudunetan jorratzeko.

q) Koordinazio- eta lankidetza-harremanak ezartzea xede berak dituzten beste erakunde edo pertsona batzuekin.

Asesorar a la administración local en la definición de las líneas principales de actuación y en la definición de las actuaciones que deben ser prioritarias en el presupuesto de Igualdad.

Recoger las propuestas o iniciativas realizadas por las personas o grupos que no participan en el Consejo de Igualdad.

Recibir las denuncias de las actitudes discriminatorias que le lleguen al Consejo de Igualdad y dejarlos en manos de los órganos competentes para su tramitación, si las actitudes denunciadas rompen la base de la igualdad o son ofensivas para las mujeres y están debidamente fundamentadas.

Impulsar la participación, fomentar la cooperación y el trabajo colectivo con otras asociaciones y demás entidades que realicen actividades favorables a las mujeres.

Acordar la inclusión o expulsión de miembros de la mesa.

Estudiar y analizar la situación de las mujeres en el municipio y en su caso, denunciar por medio de informes cualquier situación de discriminación por razón de sexo que se produzca en el municipio.

Realizar un seguimiento de las condiciones que posibiliten la igualdad de ambos sexos y la participación equilibrada de mujeres y hombres en la vida ciudadana, política, económica, social, cultural y educativa.

Formular propuestas a diferentes instancias y organismos para realizar programas y actuaciones destinadas a conseguir la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

Proponer la realización de campañas de sensibilización e información en todos

2. Udalak beharrezko baliabideak eskainiko ditu aurrekontuetan Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen Kontseiluaren funtzioak betetzeko, baita haien funtzionamendurako ere.

5. artikulua.— Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen Kontseiluaren osaera.

1. Hauek izan ahalko dute Zallako Berdintasun Kontseiluko eskubide osoko kide:

a) Alkatea.

b) Saileko arduradun politikoa.

c) Saileko teknikaria.

d) Emakumeen elkarteen, berdintasun-elkarteen edo elkarte feministen taldeak, Zallan jarduten dutenak.

e) Kirol- eta kultura-taldeetako kide diren eta feminismoan eta berdintasunean interesa duten emakumeak, eta, berdintasunaren aldeko jarduerak egiteaz gain, berdintasunean interesa duten emakume indibidualak.

f) Ikastetxeak.

g) Helduentzako hezkuntza-zentroak.

h) Udalerriko osasun-zentroa.

i) Zallan parekidetasunaren eta berdintasunaren alde lan egiten duten gizarte-erakundeak.

j) Udaleko talde politikoetako ordezkariak.

2. Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen Kontseiluak behatzaile eta aholkulariak onar ditzake; hitza edukiko dute, baina botorik ez.

3. Hitza eta botoa edukiko du talde edo elkarte bakoitzeko ordezkari batek, baina behatzaile edo aholkulari moduan hartu ahalko dute parte beste batzuek, betiere Berdintasun Kontseiluko Idazkaritzari eta Presidentetzari 6 egun lehenago jakinarazten

aquellos aspectos que contribuyan a mejorar la calidad de vida de las mujeres.

Fomentar el asociacionismo entre mujeres estimulando su creación y prestando apoyo y asistencia.

Canalizar propuestas, sugerencias o quejas colectivas o individuales para su tratamiento en los órganos municipales competentes.

Establecer relaciones de coordinación y cooperación con otras entidades o personas que compartan los mismos fines.

2. El Ayuntamiento facilitará en los presupuestos los medios oportunos para el cumplimiento de las funciones del Consejo Igualdad y Mujeres por la Igualdad y para su adecuado funcionamiento.

Artículo 5.—Composición del Consejo de Igualdad y Mujeres por la Igualdad.

1. Podrán ser componentes de pleno derecho del Consejo Igualdad de Zalla:

a) Alcalde/alcaldesa.

b) Responsable político del área.

c) Técnico del área.

d) Grupos de asociaciones de mujeres, de igualdad y /o feministas que tengan su ámbito de actuación en Zalla.

e) Mujeres pertenecientes a grupos deportivos o culturales que estén interesadas en el feminismo y la igualdad o mujeres individuales que realicen actividades a favor de la igualdad y tengan interés sobre Igualdad.

f) Centros educativos.

g) Centros de educación para adultos.

h) Centro de salud del Municipio.

i) Instituciones sociales que trabajen en pro de la equidad e igualdad desarrollando su actividad en Zalla.

badiete.

6. artikulua.— Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen Kontseiluan sartzea.

1. Aurreko atalean aipatutako talde edo erakundeek, Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen Kontseiluan sartu nahi badute, mahaiko presidenteari idatziz bidali beharko diote eskaera. Eskaerarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Erakundearen, elkartearen edo taldearen izena.

b) Hala izanez gero, elkarte edo erakundearen estatutuak eta batzordearen oniritzia, autonomia funtzionala aitortuz antolatutako emakume-atal edo -kolektiboei.

c) Hala izanez gero, helbide soziala eta bazkide-kopurua.

d) Elkarteak Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen Kontseiluan izango duen ordezkariaren izen-abizenak, baita haren ordezkoarenak ere.

e) Helbidea, helbide elektronikoa eta telefonoa, deialdietarako.

2. Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen Kontseiluan parte hartu nahi duten pertsona guztiek datu hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Izen-abizenak.

b) Parte-hartzerako arrazoien azalpena.

j) Representantes de los grupos políticos representados en el Ayuntamiento.

2. El Consejo de Igualdad y Mujeres por la Igualdad podrá admitir personas observadoras o asesoras que tendrán voz pero no voto.

3. Tendrán voz y voto un/a único/a representante por asociación o agrupación, pero podrán acudir como personas observadoras o asesoras siempre y cuando sea notificado con 6 días de antelación a la secretaría y presidencia del Consejo de Igualdad.

Artículo 6.—Incorporación al Consejo de Igualdad y Mujeres por la Igualdad.

1. Las entidades o grupos mencionados en el artículo anterior que pretendan su incorporación en el Consejo de Igualdad y Mujeres por la Igualdad deberán dirigir su solicitud por escrito a el/la presidente/a de la mesa. Deberán aportar a la solicitud de ingreso la siguiente documentación:

a) Nombre de la entidad, asociación o grupo.

b) Si los tuvieran, estatutos de la asociación o entidad, o/y acuerdo de la Comisión reconociendo autonomía funcional a secciones o colectivos de mujeres que estén organizados.

c) Si lo tuvieran, domicilio social y número de asociadas.

d) Nombre y apellidos de la delegada de la


Kosme Bibanko, 2 | 48860 Zalla (Bizkaia) Tel- 010- 946390001 - udala@zalla.org - www.zalla.org

c) Interesaren egonkortasunaren eta irabazi-asmorik ez izatearen zinpeko deklarazioa.

e) Helbide elektronikoa eta telefonoa, deialdietarako.

3. Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen Kontseiluak onetsiko ditu Kontseiluan sartzeko eskaerak, aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ostean.

4. Datuek aldaketak izaten badituzte, Kontseiluko idazkariari jakinarazi beharko zaio, hilabeteko epean.

7. artikulua.— Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen Kontseiluko kide-izaera galtzea.

1. Mahaiko kide izateari utziko zaio honako arrazoi hauengatik:

a) Norberaren borondatez.

b) Hiru aldiz ez bertaratzeagatik, idazkariari jakinarazi gabe.

c) Araudi honetan ezarritakoa behin baino gehiagotan hausteagatik eta/edo Kontseiluaren funtzionamendua modu larrian aldarazteagatik.

d) Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen Kontseiluaren printzipio eta helburuekin bat ez datozen jarrerak izateagatik edo horien kontrako jarduerak edo adierazpenak egiteagatik.

2. Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen Kontseiluak erabakiko du kide bat Kontseilutik botatzea, entzunaldia eman ondoren elkarteari, erakundeari edo dagokionari.

3. Mahaiko kide izateari uzteak ez du esan nahi berriro Kontseiluko kide izan ezin duenik, Kontseilutik kanporatua izateko arrazoiak desagertu badira.

8. artikulua.— Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen Kontseiluko kide izateak ez du inolako ordainsaririk ekarriko.

entidad o asociación en el Consejo de Igualdad y Mujeres por la Igualdad, así como el de su suplente.

e) Dirección, correo electrónico y teléfono para las convocatorias.

2. Cualquier otra persona que desee participar en el Consejo de Igualdad y Mujeres por la Igualdad deberá presentar los siguientes datos:

a) Nombre y apellidos.

b) Explicación de las razones que tiene para su participación.

c) Declaración jurada de la estabilidad de su interés y de no tener ánimo de lucro.

e) Correo electrónico y teléfono para las convocatorias.

3. Las solicitudes de integración serán aprobadas por el Consejo de Igualdad y Mujeres por la Igualdad, tras la verificación del cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo anterior.

4. Si hubiese alguna modificación en los datos se le deberá comunicar a la secretaria del consejo, en el plazo de un mes desde dicha modificación.

Artículo 7.— Pérdida de la condición de componente del Consejo de Igualdad y Mujeres por la Igualdad.

1. Se perderá la condición de miembro de la mesa por las siguientes razones:

a) Voluntad propia.

b) Por falta de asistencia sin avisar a la secretaria tres veces.

c) Incumplimiento reiterado de lo establecido en este reglamento y/o alterar gravemente el funcionamiento del consejo.

d) Que tenga conductas, realicen actividades o manifestaciones contrarias a los principios y

9. artikulua.— Presidentearen funtzioak eta erantzukizunak.

Alkatea edo saileko arduradun politikoa, funtzioak azken horri eskuordetzen zaizkionean, izango da presidentea. Horiek izango dira Berdintasun Kontseiluko ordezkari nagusiak, eta horiek izango dira arduradun politikoak.

Funtzio hauek izango dituzte:

Bilerak zuzentzea eta amaitzea; eztabaidak moderatzea.

Kontseiluaren ordezkari publiko izatea eta Kontseiluaren jarduerak zuzentzea.

Biltzarraren edo Udalbatzaren eta Batzorde Iraunkorraren edo Gobernu Kontseiluaren bileretako aztergaien zerrenda zehaztea, deialdia egitea eta bileretako presidente gisa aritzea; moderatzaile-lanak egitea eztabaidetan eta bozketen emaitzak argitzea berdinketa dagoenean.

Izendapenak eta kargu-uzteak jasotzea, mahaiko kideek proposatuta.

Kontseiluak egindako proposamenak dagokion batzordeari helaraztea.

Egindako proposamenen berri ematea Berdintasun Kontseiluari.

Kontseiluaren erabakiak betetzen direla bermatzea eta Kontseiluaren beraren xedeak betetzen direla zaintzea.

Lan-batzordeak proposatzea.

Araudia aplikatzeko orduan sortzen diren zalantzak ebaztea.

objetivos del Consejo de Igualdad y Mujeres por la Igualdad.

2. El cese como miembro del consejo lo acordará el Consejo de Igualdad y Mujeres por la Igualdad una vez concedida audiencia a la asociación, entidad o a quien corresponda.

3. El cese como miembro de la mesa no significa que no pueda volver a ser integrante del consejo, si las razones de la exclusión del consejo han desaparecido.

Artículo 8 Ser miembro del Consejo de Igualdad y Mujeres por la Igualdad no traerá consigo ninguna remuneración económica.

Artículo 9.—Funciones y responsabilidades El/La Presidenta/e.

La Presidencia recaerá sobre el alcalde o alcaldesa o el/la responsable político/a del área cuando sean delegadas las funciones sobre este/a. Serán los máximos representantes del Consejo de Igualdad. Serán los/as responsables políticos.

Tendrán las siguientes funciones:

Dirigir y finalizar las reuniones; moderar los debates.

Representar públicamente al Consejo y dirigir sus actividades.

Establecer el orden del día, convocar y presidir las reuniones de la asamblea o pleno y la comisión permanente o junta de gobierno, interviniendo como moderadora de los debates y dirimiendo las votaciones en

Kontseiluaren erabakien berri ematea Udalari eta bertako organoei.

Berdintasun Kontseiluaren eta beste erakunde batzuen arteko harremana koordinatzea (udal-kontseiluak, udal-batzarrak, Udaleko gobernu-organoak, etab).

Udalbatzako kideak eta Kontseiluko kideen izendapenak eta kargu-uzteak proposatzea.

Presidenteorde lehena.

Udalbatzako kide bat da; alkateak izendatzen du, eta presidentea ordezkatzen du hura falta denean. Hauek dira presidenteordearen funtzioak:

11. Presidenteari laguntzea bere funtzioak betetzen, eta presidenteak eskuordetzen dizkion funtzioak betetzea.

12. Presidentea ez dagoenean, haren funtzioak betetzea.

Idazkaria Udaleko berdintasun-teknikaria izango da. Hauek izango dira idazkariaren funtzioak:

a) Bileren deialdiak egitea eta bidaltzea.

b) Berdintasun Kontseiluaren bileren aktak eta erabakien ziurtagiriak egitea.

c) Mahaiko kideen eta ordezkarien erregistroa eguneratuta izatea. Altak eta bajak.

d) Eztabaidak gidatzea eta bideratzea. Gaien alderdi teknikoa lantzea eta Berdintasun Kontseiluaren aurrean aurkeztea.

e) Gobernu Batzordearekin batera, aurrekontuak egiten laguntzea eta aurrekontuen jarraipena eta kontrola egitea, besteak beste.

Elkarteen eta erakundeen ordezkariak:

Berdintasun Kontseiluan parte hartzeak berekin dakar:

caso de empate.

Recibir a propuesta de las personas miembros de la mesa, los nombramientos y los ceses.

Hacer llegar a la comisión correspondiente las propuestas emitidas por el consejo.

Informar al Consejo de Igualdad sobre el desarrollo de las propuestas realizadas.

Asegurar el cumplimiento de los acuerdos del Consejo y velar por el cumplimiento de los propios fines.

Proponer comisiones de trabajo.

Resolver las dudas que se presenten en la aplicación del reglamento.

Informar al ayuntamiento y sus distintos órganos de los acuerdos del Consejo.

Coordinar la relación entre Consejo Igualdad y otras instituciones (Consejos municipales, juntas municipales, órganos de gobierno del ayuntamiento, etc.).

Realizar la propuesta de los componentes del pleno, los nombramientos y ceses de los miembros del Consejo.

La Vicepresidencia Primera.

Corresponde a una persona perteneciente a la corporación, nombrada por el alcalde o la alcaldesa que sustituye a la presidencia en caso de ausencia. Las funciones de la Vicepresidencia son:

Colaborar con la presidenta en el cumplimiento de sus funciones, ejercicio de funciones que delegue la presidenta.

Ejercer las funciones de la presidenta en su ausencia.

La Secretaría será el/ la técnico/a de igualdad del Ayuntamiento. Constituyen funciones de la secretaría:

a) Confeccionar y enviar las convocatorias de las reuniones.

b) Levantar las actas de las sesiones del Consejo de Igualdad y realizar certificados de

a) Udalak onetsitako araudia onartzea.

b) Elkarte edo erakundeari ematea mahaian landutako edukien berri.

c) Bileretan erabakitakoa betearaztea.

d) Proposamenak planteatzea eta modu konstruktiboan parte hartzea.

10. artikulua.— Funtzionamendua.

1. Berdintasun Kontseiluak, bere izaera kontuan hartuta, ahalmena izango du proposamenak egiteko dagokion informazio-batzordeari. Batzorde horrek proposamenak helaraziko dizkie eskumeneko erakundeei eta, emaitza ezezkoa bada, idatziz erantzungo dio Berdintasun Kontseiluari, ezezko horren arrazoiak emanez.

2. Parte-hartzaileen kopuruaren arabera, bi nukleo osatuko dira: Gobernu Batzordea edo Batzorde Iraunkorra eta Biltzarra edo Udalbatza. Gobernu Batzordea edo Batzorde Iraunkorra hilero bilduko da, eta Biltzarra edo Udalbatza gutxiagotan. Gobernu Batzordeak edo Batzorde Iraunkorrak egiten duen guztiaren berri eman behar dio Biltzarrari edo Udalbatzari.

* Biltzarraren edo Udalbatzaren funtzioak:

a) Barne-araudia eta funtzionamendurako gainerako arauak proposatzea, baita arau horiek aldaketak ere.

b) 4. artikuluan adierazitako funtzioak betetzea.

los acuerdos.

c) Llevar de forma actualizada el registro de las personas miembro de la mesa y de las personas representantes. Tanto las altas como las bajas.

d) Guiar y encaminar los debates. Asimismo, trabajar los temas en su aspecto técnico y presentarlos ante el Consejo de Igualdad.

e) Prestar soporte, seguimiento y control presupuestario, etc., conjuntamente con la Junta de Gobierno.

Representantes de asociaciones y entidades:

La participación en el Consejo de Igualdad contempla:

a) Aceptar la normativa previa aprobación municipal.

b) Comunicar a la asociación o entidad los contenidos de la mesa.

c) Hacer cumplir lo acordado en las reuniones.

d) Plantear las propuestas y participar de un modo constructivo.

Artículo 10.—Funcionamiento.

1. Teniendo en cuenta su naturaleza, el Consejo de Igualdad estará facultada para realizar propuestas a la comisión informativa correspondiente. La comisión comunicará las propuestas a las entidades que estén

* Batzorde iraunkorraren zereginak:

a) Zallako emakumeen interesak defendatzeko eta sustatzeko proposamenak egitea talde sustatzaileari.

b) Kontseiluko gai arruntak kudeatzea.

c) Biltzarrak edo Udalbatzak eskatutako lanak gauzatzea.

d) Kontseiluaren Urteko Jardueren Programa eta Urteko Memoria diseinatzea eta planifikatzea, Biltzar Orokorrean edo Udalbatzan aurkezteko.

e) Biltzar Orokorrean edo Udalbatzan proposatzea lan-batzorde berriak egin daitezela.

f) Lana koordinatzea batzordeekin.

g) Ezohiko biltzarretarako deialdia egitea.

3. Kontseiluko presidentea edo presidentea izango da, halaber, Batzorde Iraunkorreko presidentea.

4. Batzorde Iraunkorra hauek osatuko dute: presidentea, presidenteordea eta bost kide; denak Biltzarrak edo Udalbatzak aukeratuko ditu. Hilean behin bilduko da, Batzordean bertan ezarritako eta onartutako egutegiari jarraikiz.

Proposamenak egiteko, akordioetara iritsi beharko dute. Horretarako mekanismo egokiena adostasuna da. Erabakiak aho batez hartuko dira, eta, ezinezkoa denean, bertaratutako pertsonen gehiengo osoz.

5. Berdintasun Kontseilua eratzeko beharrezko quoruma kideen erdia gehi bat izango da.

11. artikulua.— Kontseiluko kide diren elkarte eta erakundeen eskubideak eta betebeharrak.

facultadas y si la respuesta es negativa responderá por escrito al Consejo de Igualdad razonando la respuesta negativa.

2. Conforme a la cantidad de personas participantes se crearán dos núcleos: La Junta de gobierno o Comisión permanente y la Asamblea o Pleno. La Junta de gobierno o Comisión permanente se reunirá mensualmente y la Asamblea o Pleno en cambio, con menor asiduidad. La Junta de gobierno o Comisión permanente deberá comunicar a la Asamblea o Pleno todo lo que realice.

* Funciones de la Asamblea o Pleno:

a) Proponer la normativa interna y demás normas para el funcionamiento y también sus modificaciones.

b) Cumplir las funciones mencionadas en el artículo 4.

* Funciones de la Comisión permanente:

Realizar al grupo promotor las propuestas para la defensa y promoción de los intereses de las mujeres de Zalla.

Gestionar los asuntos ordinarios del Consejo.

Desarrollar los trabajos encomendados por la Asamblea o Pleno.

Diseñar y planificar el Programa Anual de Actividades y la Memoria Anual del Consejo para presentarlos a la Asamblea General o Pleno.

Proponer a la Asamblea General o Pleno que se creen nuevas Comisiones de Trabajo.

Coordinar los trabajos de las Comisiones.

Convocar Asambleas extraordinarias.

3. La persona que ostente la presidencia del Consejo o la vicepresidencia lo es también de la Comisión permanente.

a) Eskubideak:

a) Osoko bilkuretako aztergaien zerrendetan egokitzat jotzen dituzten gaiak sartzeko eskatzea.

b) Deitzen diren bileretara bertaratzea, eztabaidetan parte hartzea, eskaerak eta galderak egitea eta botoa emateko eskubidea baliatzea, idazkariak izan ezik.

c) Bileretako egintzen eta erabakien ziurtagiriak eskatzea.

d) Esleituta dituzten funtzioak gauzatzeko informazio egokia jasotzea.

b) Betebeharrak:

a) Deitzen diren bileretara bertaratzea.

b) Lantzen diren gaiek ordezkatzen dituzten erakundeen interes partikularrei eragiten dietenean, abstenitzea.

c) Gaiak hala eskatzen duenean, konfidentzialtasuna gordetzea.

12. artikulua.— Deialdia.

Deialdiak iragarki-taulan eta Udalaren gainerako komunikazio-kanaletan argitaratuko dira. Deialdiak zazpi egun natural lehenago egin beharko dira, idatziz. Deialdiarekin batera, behin-behineko aztergaien zerrenda eta aurreko bileraren akta igorri beharko dira. Mahaiko kideek hiru egun izango dituzte aztergaien zerrendan sartu nahi duten beste gairen bat proposatzeko. Behin betiko deialdiarekin

4. La Comisión permanente estará constituida por el/la Presidente/a, el/la Vicepresidente/a y cinco vocales, que serán elegidos/as por la Asamblea o Pleno. Se reunirá una vez al mes, según el calendario establecido y aprobado en la propia Comisión.

Para realizar las propuestas deberá llegarse a acuerdos mutuos. Para ello, el mecanismo más adecuado es el consenso. Los acuerdos se adoptarán por unanimidad y cuando no sea posible mediante mayoría absoluta del número de personas asistentes.

5. El quórum necesario para la constitución del Consejo de Igualdad será el de la mitad de los miembros más uno.

Artículo 11. Derechos y deberes de las asociaciones y organizaciones miembros del Consejo.

Derechos:

a) Solicitar la inclusión de asuntos que estimen pertinentes en el orden del día de los Plenos.

b) Asistir a las reuniones que se convoquen, participar en los debates, formular ruegos y preguntas y ejercer su derecho al voto, a excepción del/a secretario/a.

c) Solicitar certificados de los actos y acuerdos de las reuniones.

d) Recibir la información adecuada para cumplir las funciones que tiene asignadas.


Kosme Bibanko, 2 | 48860 Zalla (Bizkaia) Tel- 010- 946390001 - udala@zalla.org - www.zalla.org

batera, behin betiko aztergaien zerrenda bidaliko da, eta lau egun natural lehenago bidali beharko dira.

2. Premiazko deialdia egiteko, berriz, gehieneko epea lau egun naturalekoa izango da.

13. artikulua.— Xedapen iragankorra.

Une honetan Berdintasun Kontseilua osatzen duten elkarteek eta pertsonek bete egin beharko dute araudi honetan ezarritakoa. Berdintasun Kontseiluak egokitzat jotzen badu, araudi hau berrikusi egingo da.

14. artikulua.— Azken xedapena.

Udalbatzari dagokio dokumentu honetako xedapenak eta aldaketak onartzea.

Zallan, 2020ko urtarrilaren 15ean. Alkatea, Juan Ramón Urkijo Etxeguren.

Deberes:

a) Asistir a las reuniones que se convoquen.

b) Abstenerse cuando los asuntos que se traten afecten a intereses particulares de las entidades que representan.

c) Guardar confidencialidad cuando el asunto lo requiera.

Artículo 12.—Convocatoria.

Las convocatorias se publicarán en el tablón de anuncios y en el resto de canales de comunicación del Ayuntamiento. Las convocatorias deberán realizarse con siete días naturales de antelación, por escrito. Junto con la convocatoria deberá remitirse el orden del día provisional y el acta de la anterior reunión. Las personas miembros de la mesa contarán con tres días para proponer algún otro tema que quieran incluir en el orden del día. La convocatoria definitiva se enviará con el orden del día definitivo con una antelación de cuatro días naturales.

2. Para una convocatoria de urgencia, en cambio, habrá un plazo máximo cuatro días naturales.

Artículo 13.—Disposición transitoria.

Las asociaciones y personas que constituyen el Consejo Consejo de Igualdad en la actualidad deberán cumplir lo establecido en esta normativa. Si el Consejo de Igualdad considerase oportuno, se revisará esta normativa.

Artículo 14.—Disposición final.

Corresponde al Pleno aprobar las disposiciones y modificaciones de este documento.

En Zalla, a 15 de enero de 2020.- El Alcalde, Juan Ramón Urkijo Etxeguren.

Digitalki sinatuta-Firmado digitalmente.
Alkatea
Juan Ramon Urkijo Etxeguren
15-01-2020 12:45


Kosme Bibanko, 2 | 48860 Zalla (Bizkaia) Tel- 010- 946390001 - udala@zalla.org - www.zalla.org